

3

EAEko gehiengo euskalduna duten udalerriak epaitegi erdaldunetan

HAUSNARTU Euskal Soziolinguistika Sarien VIII. Edizioko
HIRUGARRREN SARIA (2015)

Haritz Etxeberria Bereziartua

Zuzenbidean graduatua

hbereziartua@gmail.com

Sarrera-data: 2015-11-03 / Onartze-data: 2015-11-30

Laburpena. Errealitate soziolinguistikoaren arabera gehien euskalduna duten udalerrietan, lan hizkuntza euskara izateko, indarrean dagoen Legediaren azterketa bat egin dugu. Berezi, EAEn kokaturiko Administrazioen artean, erabili beharreko hizkuntza aztertu da. Horretarako, Espainia eskumen banaketatik abiatuta, Estatuan eta Euskadiko Erkidego Autonomikoan, toki administrazio eremuan indarrean dagoen Legedia aztertu dira. Ondoren, Jurisprudentzia Konstituzionala eta Auzitegi arruten Jurisprudentziaren eboluzioa aztertu da. Jarraian, EAEn, kokaturiko administrazioek, euren arteko harremanetan, euskara balio eta eraginkortasun juridikoz erabiltzeko dauden oinarri juridikoak aztertu dira eta ondoren, arazo juridiko berdinei aurre egiteko, beste autonomia erkidegoek erabilitako formulak. Guzti honetatik, euskarak Lege mailako arau berri baten beharra duela ondorioztatu dugunez, Udal Lege proiektuaren ezarpenak mahai gaineratu ditugu, arazo hauek, gainditu ditzakeen hausnartzeko. • **Hitz gakoak:** *Herri administrazioa eta hizkuntz Legedia, jurisprudentzia, Euskararen Normalizazio Legea, formulak, Udal lege proiektu berria.*

Abstract. In the municipalities that are majority Basque-speaking in terms of their sociolinguistic reality, we have analysed the legislation in force enabling Basque to be the language of work. Specifically, the language that has to be used in the Administrations located in the Basque Autonomous Community has been analysed. So, from the starting point of the distribution of powers in Spain, the legislation in force in the sphere of the local administrations in the State and in the Basque Autonomous Community has been analysed. That was followed by an analysis of the following aspects: Constitutional Jurisprudence and the evolution in the Jurisprudence of the ordinary courts; the legal bases existing for the administrations located in the Basque Autonomous Community to use Basque with legal force and effect in their relations with each other; and the formulas used by other autonomous communities (regions) to deal with the same legal problems. As we have concluded from all this that Basque needs a new regulation on a level of law, we have put forward contributions to the draft Municipal Law to reflect on the possible solutions to these problems. • **Key words:** *Public administration and language legislation, jurisprudence, law on the Normalisation of the Basque Language, formulas, the new draft Municipal law.*

Joshua Aaron Fishman: Gobernu baten hizkuntza-politikak ezin du arrakastarik izan baldin eta herritarren borondatea eta parte hartzea kontuan hartzen ez badira. Baina, aldi berean, herritarren parte hartzea berez ez da aski hizkuntza baten berreskurapena eragiteko, baldin eta erakundeen laguntzarik ez badu.

1. SARRERA

Helburua, Euskararen erabileran, Euskadiko Autonomia Erkidegoan kokaturiko Udalerri euskaldunetan, euskara lan hizkuntza izateko bidean sortu diren arazo juridikoen azterketa egitea da. Zalantzak uxatzen aldera, esan beharra dago, Udalerri euskaldunak diogunean, %70 baino gehiagok euskaraz dakiten Udalerriez ari garela. Beraz, indarrean dagoen Legediak soilik ez, baizik eta, errealitate soziolinguistikoaren arabera ere lasai esan dezakegu, Udalerri hauetako berezko hizkuntza Euskara dela, hots, Ofizialtasuna, ezagutza eta erabilera arrunta den Udalerriei buruz ari gara. Berauek, inor diskriminatu gabe, eguneroko lan hizkuntza euskara izatea nahi dute.

Orokorrean, momentuz, EAEko Administrazio publiko gehienetan gaztelera da hizkuntza nagusia, eta era berean, ez luke inongo oztoporik egon behar gehiengo euskalduna duten toki administrazioetan benetako lan hizkuntza euskara izateko, beti ere, kanpo erabileran inor diskriminatu gabe. Errealitatean ordea, ez da horrela izan eta euskarak ondoan, eraginkortasun eta efektu juridikoak izateko, gaztelania eduki behar izan du.

Legebiltzarrak, Euskararen Erabilera Arautzeko 10/1982 oinarritzko Legea onartzean 8.3. art. aurreikusi zuen, non, udal mailan, lekuan lekuko egoera soziolinguistikoaren arabera eta herritarren hizkuntza eskubideak urratzen ez ziren heinean, euskara eraginkortasun juridiko osoz, gaztelaniara itzuli gabe erabiltzea ahalbidetzen zen. Euskararen legearen onartu eta hilabete gutxira, Espainiako Gobernu sozialistak Eusko legebiltzarraren legeari, Konstituzio-aurkako errekurtsioa tarteratu zion eta Konstituzio Auzitegiak, 8.3. art. espainiar konstituzioaren aurkakotzat jo zuen.

Ordutik gaur arte, Eusko Legebiltzarrak, Katalunian eta Galizian ez bezala, ez du Lege mailako araurik onartu. Euskararen esparruan, apirilaren 15eko 86/1997 dekretua (ez du Lege mailarik) onartu arren, Auzitegiek ez diote onartu benetako lan hizkuntza balio, ezta bere aplikazioan, eraginkortasun osoarekin, udaletxetan euskara erabili daitekeela gaztelaniarik gabe.

EAEko kokaturiko Udalerri euskaldunek, inor diskriminatu gabe, euskara benetako lan hizkuntza izateko, euskaraz eraginkortasun eta efektu juridiko osoz funtzionatzeko ez dute eduki nahiko legezko estaldura eta Euskararen erabilera bultzatu nahi bada, segurtasun juridikoarekin, Lege-mailako arau bat onartu behar da Eusko legebiltzarrean.

**Toki
Administrazioei
dagokionez,
Katalunia eta
Galiziako
ordenamenduak
dira garatuenak.**

Legezko estaldura gabezi honi, Espainiako Gobernuaren Ordezkaritzak, egiten duen, 8.2. art.ren idazkeraren interpretazio zorrotza gehitu behar diogu. Begi bistan usten du udalerri euskaldunen jarduera oztopatzeko egiten duela, ez baitio bere buruari udalerriei exijitzen diona aplikatzen.

Azkenik, kontuan izan behar dugu, Epailea dela epaiketa batean egindako froga guztiak eta indarrean dauden legeak aztertu eta interpretatu ondoren ebazpena emateko eta ebatzitakoa betearazteko ardura duena. Legeak ez du inolako beharrik ezartzen euskara ezagutzeko, eta Administrazioen Auziko langile taldeak euskalduntzeko ez dute inolako borondaterik erakutsi, nahiz eta, Justizia Administrazioaren hizkuntza-normalizaziorako erabakigarria den. Beraz, euskaraz ez dakiten Epaileak ebatzi behar dute epaia, orokorrean, euskararekin sentsibilizatuta ez dauden pertsonak, interpretatu eta ebatzi behar dituzte euskararen erabilerari eragiten dioten arauak.

Laburbilduz, EAEn kokaturiko Udalerri euskaldunek, inor diskriminatu gabe, euskara benetako lan hizkuntza izateko, euskaraz eraginkortasun eta efektu juridiko osoz funtzionatzeko ez dute eduki nahiko legezko estaldura eta Euskararen erabilera bultzatu nahi bada, segurtasun juridikoarekin, Lege-mailako arau bat onartu behar da Eusko legebiltzarrean.

2. HIZKUNTZA ARAUDIAK TOKI-ADMINISTRAZIO EREMUAN

I Estatuko araudia eta Araudi autonomikoa aztertzen hasi aurretik kontuan izan behar dugu, ofizialtasunak ez dakarrela berarekin ofiziala den hizkuntza nahitaez administrazioaren jardun guztietan erabili beharra, ezta aginte publikoak orokorrean erabili beharra ere. Ofizialtasunaren edukia eta mugak zehaztea Autonomia Erkidegoari dagokio, alegia, barruko edukia eta euskararen ofizialtasunaren ondorio juridikoak ezartzea, baina Estatuko Administrazioako organoetan hori burutzea Estatuko Administrazioari berari dagokio.

Espainiako Konstituzioko 149.1.18. art. oinarri hartuta, autonomia erkidegoetako botere publikoek ofizialtasuna arautu dezakete, baina ezin dute inolaz ere arautu Estatuak autonomia erkidegoan dituen organismoen jardun-antolamendua. Arazoak eremu zehatzetan aplikatzean sortzen dira, horretarako zehatz-mehatz adierazi behar baita non hasten den eta noraino heltzen den ofizialtasuna. Hori dela eta, batzuk eta besteak dituzten eskumenak bateragarri izan daitezten, erkidegoak ezin du hizkuntza normalizazioaren eremuan duen eskumena erabili, hizkuntza

politikan oinarrituz, Konstituzioaren antolamendua iraultzeko eta Estatuari soilik dagozkion arloak arautzeko, baina ezta Estatuak autonomia erkidegoak hizkuntza normalizazioan duen eskumena eragotzi edo edukirik gabe utzi, zenbait arlotan dituen eskumenen aitzakiatan.

1. Estatuko Araudia

Estatuko oinarritzko legea, Herri Administrazioetako Araubide Juridikoa eta Administrazio prozedura Erkidea arautzen dituen azaroaren 26ko 30/1992 Legea da. 35. art. administrazio publikoekin dituzten harremanetan herritarren eskubideak arautzen ditu, horien artean, tokiko Administrazio Erkidearen hizkuntza ofiziala erabiltzearena, betiere dagokion lurralde eremuan, eta 30/1992 zein gainontzeko ordenamendu juridikoarekin bat etorritz. 36. art. Estatuko Administrazio Orokorraren prozeduren hizkuntza arautu ondoren, Autonomia Erkidego eta tokiko administrazioetako jardunbideena arautzen du. 36.1 art. ezartzen denez, Erkidego Autonomiko Estatuko Gobernuaren Ordezkaritza derrigortuta dago erantzutean, herritarrek aukeratzen duten hizkuntza ofizialean egitera. Ondorioz, Estatuko Gobernuaren ordezkariak eta bere menpe dauden organoak derrigortuta daude betebeharrak honi aurre egitera. Horretarako, giza baliabideak antolatu beharko ditu euskaraz soilik aritzeko herritarrek horrela aukeratzen badute.

Bere bigarrenengo atalak dio Autonomia erkidegoetako eta tokiko erakundeetako administrazioek izapidetutako prozeduretan, kasuan kasuko autonomia legedian ezarritakoari lotuko zaiola hizkuntzaren erabilera. 36.3 art. dio Erkidegotik kanpo atera ezik, Administrazio instrukzio-egileak ez ditu gaztelaniara itzuli behar espedienteen agiriak, herritarrek espresuki ez badute eskatzen.

Udalen kasuan, Toki Administrazioen Antolakuntza, Funtzionamendua eta Araubide Juridikoa arautzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege-Dekretuak bere 86. art. Udalbatzaren espedienteak arautzen ditu, gaztelania edo hizkuntza koofizialean egin daitezkeela onartuz. Aktei dagokienez, 110.1 Art. dio 86.1 art. izango dela aplikagarri eta 201. art. xedatutakoaren arabera, ele-biz ere jaso daitezke aktak. Azkenik, 86.2 art. Xedatzen du eztabaidetan bi hizkuntza ofizialetako edozein erabili daitezkeela.

2. Araudi Autonomikoak

Espainiako Konstituzioko 3.2 art. abiatuta Espainiako Estatuko koofizialtasun sistema eratzen da. Artikulu honek honela dio: *Espainiako gai-*

*nerako hizkuntzak ere ofizialak izango dira dagozkien autonomia erkidegoetan,
haien estatutuen arabera.*

Horrela, Euskadiko Autonomia Estatutuak 6. art., Kataluniakoak 3. art., Galiziakoak 5. art., Valentziakoak 7. art, Balear Uharteetakoak 3. art. eta Nafarroako Hobekuntzako Legeak 9.Art¹, Espainiako Konstituzioko aukeraz baliatuz, koofizialtasuna ezarri zuten beraien autonomia erkidegoetan. Euskadiko Autonomia Estatutuak 6.1 art. euskarari gaztelaniarekin batera hizkuntz ofizial maila ematen dio eta herritar guztiei aitortzen zaie bi hizkuntzok ezagutzeko eta erabiltzeko eskubidea. Bere 2. Atalean zehazten da Komunitate Autonomoko Erakunde komunek Euskadiko egoera sozio linguistikoaren ñabardurak kontutan izanik, bi hizkuntzen erabilpena bermatuko dutela, ofizialtasuna erregulatuz eta ezagutza segurtatzeko behar diren neurriak eta medioak erabaki eta baliaraziz. 10/1982ko Legeak artikulua hau garatzen du. Euskal Autonomi Estatutuaren 6. art. EKren 3.2 art. aurreikusitakoaren ondorioa da. Hala, Euskal Estatutuak, euskarari dagokionean, Konstituzioak aipatutako artikuluan xedatzen du.

Toki Administrazioei dagokionez, Katalunia eta Galiziako ordenamenduak dira garatuenak. Kataluniako Udal eta toki-administrazioari buruzko 8/1987 Legearen 5. art. eta ondorengoetan xedatzen da, Katalana dela Kataluniako toki-administrazio berezko hizkuntza eta, horrela izanik, Katalana erabili behar da jarduera orokorrean. Gaineratuz, herritarrek, edozein hizkuntza ofizial aukeratzeko eskubidea dutela eta toki-administrazioak aukeratu duen hizkuntzan erantzuteko obligazioa. Amaitzeko dio, Katalunian kokatutako toki-administrazioek katalana erabili behar dutela barne jardueratan eta elkarren arteko harremanetan.

Galiziako toki-administrazioetan galiziera hizkuntza ofizialtzat erabiltzeko 5/1988 Legeko 1. art. dio Galiziako toki-administrazioetan bilkura, deialdi, gai-zerrenda, mozio erabaki, proposamen, batzordeen irizpen, boto partikular eta aktak galizieraz idatziko direla, era berean, erdaraz egiteko aukera utziz. Gainera, Galiziako toki-administrazioa arautzen duen 5/1997 Legearen 7. art. Azpimarratzen du, Galiziako berezko hizkuntza galiziera denez, toki-administrazioena ere badela, eta beraz, toki-administrazioek idatziz egindako bilkura, deialdi, mozio, akta, jakinarazpen, errekurso, eskritura publiko, boto partikular, agerraldi judizial eta administrazio egintza guztiak galizieraz egingo direla.

3. EUSKARAREN ERABILERA ARAUTZEKO OINARRIZKO LEGEA 10/1982

I
EAEn, Estatutuan aurreikusitako ofizialtasuna, Euskararen Erabilera Arautzen duen azaroaren 24ko 10/1982ko Oinarrizko Legearekin garatuta da. Bere 6. art. aintzatesten die herritar guztiei toki administrazioarekiko harremanetan euskara zein gaztelania erabiltzeko eskubidea. Gaineratuz, eskubideak bermatzeko neurri egokiak hartuko direla. Ondoren Administrazioetan euskararen erabilpenari buruz hau diote 8. eta 13 art.ek:

1. Euskal Herriko Autonomia Erkidegoan kokatutako herri-aginteen emandako arau-xedapen zein ebazpen ofizial orok bi hizkuntzetan idatzita egon beharko du zabalkunde ofiziala egiteko.
- 2 Euskal Herriko Autonomia Erkidegoan kokatutako herri-aginteen esku hartzen duten egintza guztiak eta baita administrazioaren jakinarazpen eta adierazpenak ere bi hizkuntzetan idatzita egon beharko dute, salbu eta interesdun partikularrek Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialetako bat berariaz erabiltzea aukeratzen badute.
3. 13. art. Euskal Herriko Autonomia Erkidegoan herri-aginteen erabili beharreko inprimaki edo idazki-eredu ofizial guztiek bi hizkuntzetan egon beharko dute.

8. eta 13. art.ak, bigarren tituluko (Herri-aginteen jarduera) lehen kapitulu (Euskararen erabilera herri-administrazioan Euskal Herriko Autonomia) daude kokatua. Ez dago Euskararen Legean beste artikulurik. Beraz, erakunde publikoek beren jardueretan aintzat hartu behar duten hizkuntz erregimena artikulua honetan jasotzen dena da.

Xedapen arauemaileak, ebazpen ofizialak eta EAEko aginte publikoek parte hartzen duten egintza orori aplikatu behar zaiola dirudi. Bigarrenago atalean agertzen den egintza guztiak, EAEn kokatutako botere guztien egintza guztiak elebidun izan behar duten ustea sortzen du, salbu, hiritarrek propio hizkuntza bakarra erabiltzearen autua egiten duenean.

Gai honetan, Epaia ugari izan arren ez diote erantzun bakarra eman eta hemen aurkitzen da arazoaren muina, kontuan izanik, oraindik, EAEn kokatutako administrazioetan, egintza asko direla erdara hutsean ematen direnak, baina herri euskaldunetan, Udalentsat oztopo nabarmena da, bertan, euskara benetako lan hizkuntza izateko. Jakinik, Espainiako Gobernu Ordezkariordeztzak ez diola begirunerik euskarari, eta beraiek sustatzen dituztela Auzi-jardunbide gehienak.

***Jakinik,
Espainiako
Gobernu
Ordezkariordeztzak
ez diola
begirunerik
euskarari, eta
beraiek sustatzen
dituztela Auzi-
jardunbide
gehiak.***

4. JURISPRUDENTZIA

I

1. Konstituzio Auzitegiaren jurisprudentzia

Konstituzio Auzitegiak 82/86ko Epaian Euskararen Legeko 8.3.art. interpretatu eta Konstituzio-aurkakotzat jo zuen. Legebiltzarrak, Euskararen Erabilera Arautzeko 10/1982 oinarrizko Legea onartzean 8.3. art. aurreikusi zuen:

8.3. "Aurrekoan agindukakoa gora behera, herri-aginteez euskara bakarrik erabili ahal izango dute toki-administrazioaren esparruan baldin eta, udalerriaren ezaugarri soziolinguistikoak direla-eta, herritarren eskubideak kaltetzen ez badira."

Legeak, bidezkotzat jotzen zuen, udal mailan, lekuan lekuko egoera soziolinguistikoaren arabera eta herritarren hizkuntza eskubideak urratzen ez ziren heinean, "...euskara bakarrik erabili ahal..." izatea.

Legegileak, artikulua honekin, gehien bat euskaraz mintzo diren toki-administrazioetan bakarrik balio zuen sistema diseinatu zuen baina Konstituzio aurkakotzat jo zuen KA, bere oinarri juridikoan 8.3. art.ak EK 3.1. art. Xedatutakoa urratzen zuela argudiatuz. Alegia, EAEko Estatutuaren 6. Artikuluak ez du euskaraz jakiteko derrigortasunik jartzen eta beraz, ez dago Estatuko lurralde barruan inon ere euskaraz jakin beharrik. 8.3. art. Euskara hutsez idaztea aurreikusten duenez eta herritarren eskubideak ez kaltetzeko salbuespenak ez duenez aukera hori alde batera uzten, gaztelania baztertzea ezinezkoa da herritarren eskubideak urratu gabe zeren eta inon ez baitago euskaraz jakiteko obligaziorik². Edozein administrazioetan gaztelera baztertze hutsak, hiritar gazteleradun elebakarren eskubideak urratzen ditu, eta horregatik "*hiritarren eskubideak kaltetzen ez dituzten neurrian*" adierak ezin du artikulua horren konstituzioa aurkakotasuna gutxitu. Argudio hau, baina, ezin da Administrazioen arteko harremanetara aplikatu, Euskadin kokatutako Administrazioek badutelako euskara jakiteko eginbehar bat, epai horrek berak onartzen duen bezala. Ezin dute, hortaz, euskara ez dakitenik modu zilegi baten alegatu, edo inolako eskubiderik urratu zaienik euskara hutsa erabiltzeri duten idatziak zuzentzen zaizkienean. Izatez, Konstituzio epaiaren arabera, hizkuntza baten ofizialtasuna onartzeak hizkuntza horretan idatzitakoak baliozkotzat hartu behar izatea dakar, noski, itzulpenik egin gabe.

Sarritan esan izan da, Konstituzio Auzitegiaren pasarte honek huts nabarmena duela eta juridikoki, erabat kritikagarria dela³. Nekez baieztatu

daiteke, Administrazioak ofiziala den hizkuntza bat erabiltzeak Konstituzioaren 3. artikulua urratzen duenik. Espainiako Gobernu Zentralak, Konstituzio Auzitegiaren epaiaren urte berean, administrazio-barneko zenbait jarduera eta egintza gaztelaniaz zein erkidegoan erkidegoko hizkuntza koofizialean egiteko, “...Conforme a la legislación aplicable y a los acuerdos adoptados al respecto por la correspondiente corporación...”⁴ aukera zabalik utzi zuen. Harrigarria da, Konstituzio Auzitegiak Euskararen Legeari ukatzen ziona, Estatuko arauak ontzat hartzea⁵.

Geroztik, Konstituzio Auzitegiak, ez du jarrera hain gogorrean ebatzi. Abenduaren 23ko KAE 337/1994, Kataluniako Hizkuntza Normalkuntzari buruzko 7/1983 Legearen 20 art. ebazterakoan egin zuen interpretazioan nabari da aldaketa. 20. art. dio irakaskuntza zentroen Katalana eguneroko hizkuntz arrunta edo ohikoa izan behar duela bai barne eta bai kanpo jardueratan⁶.

Kasu honetan, KA onartu egiten du koofiziala den hizkuntza nagusitzea administrazioan. Beti ere, noski, hiritarren hizkuntza eskubideekiko errespetua egiaztatuta badago. Ikusten dugunez, KA ez du jarraitzen 10/82 Legeko 8.3. art. aurrean izan zuen jarrera, bidezko ikusten duelarik erkidegoan erkidegoko hizkuntza koofizialak, Administrazioaren barne eta kanpo harremanetan erabilera arrunteko izatea.

KA dio, artikularen “*vehículo de expresión normal*” aurkitzen dela arazoa eta hori Konstituzio aurkakoa izango zen baldin eta bertatik ondorioztatzen baldin bazen erdararen erabilera anormala izango zela, gaztelania erabat baztertuz eta hizkuntza hau aukeratzen duten herritarren hizkuntza eskubideak urratuz. KA ustez, hori, ordea ez da horrela, Legeak herritarren Hizkuntza eskubideak bermatzen dituelako Administrazioarekiko harremanetan katalana zein gaztelania erabiltzea aukeran jarritz⁷.

Beraz, hiritarren hizkuntza eskubideak bermatuz ezkerro, zilegi da, Administrazioak hizkuntza koofizialen artetik bat zein bestea aukeratzea bere eguneroko Jarduerarako.

Konstituzio Auzitegiak, 2010an, hizkuntzen garapena zehaztu eta mugatzen du. Kataluniako Estatuari buruzko KAE 31/2010. Epaiak guri gai honetan dagokigunez dio, berezkotasun printzipioak ezin duela ofizialtasun bikoitzaren printzipioa ezabatu. Nolabaiteko egokitzapena eragin ditzakeela, baina orokorrean ezingo dela hizkuntza bakarraren printzipioa aplikatu, bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan burututako

**Hizkuntzen
erabilerari
dagokionean,
Administrazio
Publikoek
bermatu behar
dutena da
herritarrek
hautatutako
hizkuntza
ofiziala erabiliko
dela eta
horretarako
Administrazioaren
zerbitzura
dauden langileak
hizkuntzaren
ikuspuntutik
trebatuta egon
behar dira.**

edozein jarduerak erabateko balio eta eragin juridikoa izango baitu. Beste era batera esanda, Autonomia Erkidegoko Legebiltzarrek ezin dutela askatasun osoz hizkuntza ofizialaren garapena eta araubidea ezarri.

Beraz, hizkuntzen erabilerari dagokionean, Administrazio Publikoek bermatu behar dutena da herritarrek hautatutako hizkuntza ofiziala erabiliko dela eta horretarako Administrazioaren zerbitzura dauden langileak hizkuntzaren ikuspuntutik trebatuta egon behar dira.

KA debekatzen du katalana lehentasunezko hizkuntza izatea administrazioetan. Azpimarratuz, lehentasunezko balioa eranstea berezko hizkuntzari Konstituzioaren aurkako dela, gaztelaniarekiko koofizialtasunari kalte egin ahal diolako. Autonomia Erkidegoko Legebiltzarrak hizkuntza ofiziala izendatu dezake bere erabilera arautuz, baina lehentasunezkorik ezin dio aitortu bere berezko hizkuntzari⁸.

Baina kontuan izan behar dugu, KA onartu duela Kataluniako herri administrazioek nagusiki katalanez jardun dezaketela, beti ere, herritarrak gaztelaniaz jarduteko eskubidea errespetatzen bada eta behar diren baliabideak jartzen baditu gaztelania erabiltzeko. komunikazioak jasotzeko inolako eragozpen formalik eta baldintzarik ezarri gabe⁹. Hiritarrak dirrelako hizkuntza eskubideen subjektu eta administrazioak beren esku-bideak errespetatzeko obligazioa dute. Hau benetan interesgarria da dudarik gabe, herri administrazioa katalana lan hizkuntza izatea onartzen duelako KA..

Kataluniako Estatutuak 6. Artikuluan katalana ezagutzeko obligazioa jasotzen du, baina 31/2010 KA epaiaren arabera, obligazio hori hezkuntzara soilik mugatu beharra dago, ezin delarik Konstituzioak 3. Artikuluan gaztelania ezagutzeko obligazioarekin¹⁰ parekatu.

Gai honetan, Konstituzio Auzitegiak behin baino gehiagotan ebatzi behar izan du. Sortutako gatazkak eta hizkuntz araubidearen mugak zein diren identifikatzeko oso baliagarriak dira Epaiak, baina behin betiko ondorioak atera aurretik, azter ditzagun jurisprudentzia arruntak planteatu dituen gatazka juridikoak.

2. Auzitegi Gorenaren Jurisprudentzia

Auzitegi Gorenaren 1996ko martxoaren 26ko Epaiak (RJ 1996\2593): Kasu honetan, Bartzelonako abokatu elkargoak zein egintza idatzi ditzakeen hizkuntza bakar batean eta zein idatzi behar diren hizkuntza

bietan eztabaidatzen da. Beraz, toki-administrazio edo kasu, korporazioek, ez dituzte nahitaez bi hizkuntza ofizialetera itzuli behar izenpetzen eta argitaratzen diren dokumentu guztiak, beti ere, horrela arautzen bada erkidego horretan. Epaiak Abokatu Elkargoko Estatutuetera jotzen du eta bere 5. art. jarraituz, zehazten du, xedapen eta egintza jakin batzuk katalanez argitaratzeaz gain gazteleraz argitaratu behar direla. Adieraziz, kasuak mugatuak direla eta kideek 5.2 art. Zehazten diren egintzak eskatu ditzakete gazteleraz argitaratu eta komunikatzea. Hots 5.2 art. Zehaztutako egintzak bakarrik eska daitezke gaztelaniaz egon daitezela¹¹. Beraz hala arautzen bada eta interesdunen eskubideak kaltetu gabe noski, prozedura osoa erkidegoko hizkuntza propioan egitea posible da¹².

Auzitegi Gorenaren 1999ko maiatzaren 24ko Epaiak (RJ\1999\6393): Kasu honetan, Aizarnazabalgo Udalak onartutako ordenantza errekurritzen da. Ordenantzaren 3. art. Euskara ez den beste edozein hizkuntza ezabatzea agintzen du Udaleko barne jardueratan. Alegia, euskara berezko eta laneko hizkuntza denez modu eksklusiboan eraginekin erabiltzea. Auzitegi Gorenarentzat, kontraesana sortzen da EK 3. art. Eta ordenantzaren 3. Eta 21. Artikuluen artean, gaztelaniaz soilik mintzo direnen eskubideak urratzen direlako eta beraz ez datoz zuzenbidearekin bat ordenantzaren 3 eta 21 art.¹³

Auzitegi Gorenaren 1999ko uztailaren 1eko Epaiak (RJ\1999\6411): Hemen ere, Udal ordenantza bat aurkatzen da, kasu honetan Mallabikoa. AGk bereizkeriatzat jotzen du, Udaleko inprimaki ofizialak lehenik administratuei euskara hutsez helaraztea eta norbaitek eskaria egiten duen kasuetan bakarrik ematea ele bietan¹⁴. Bestalde, administrazioen arteko harremanei dagokienez, Ordenantza honetan aurreikusten zen, bai autonomia erkidegoko eta autonomia erkidegoan kokaturiko estatuko administrazioari, agiri guztiak euskaraz bidaltzea exijitzen zien. AGk dio, estatuko administrazio orokorrari euskararen erabilpena derrigortzea ez datorrela bat EK 3. art. Eta ezta ere 10/1982ko Legearekin¹⁵.

3. EAEko Justizia Auzitegi Nagusiaren Jurisprudentzia

EAEko Justizia Auzitegi Nagusiaren 1994ko abenduaren 30ko Epaiak (JT 1994\15878): Kasu honetan, Lasarte-Oriako Udalak gaztelera hutsean onartutako aurrekontuak zuzenbidearen arabekoak diren eztabaidatzen da. Auzitegiaren iritziz, ele biz idazten ez diren egintzak ez datoz zuzenbidearekin bat. Lasarte-Oriako Udalak interpretatzen du xedapenari balioa eta eraginkortasuna ematen dion erabaki formalari bakarrik daudela lotuak, baina Auzitegiak azpimarratzen du, administrazio

egintzak formazko elementuari (10/82ko 8 art.ri) lotuagoak daudela jakinarazpen eta argitalpen baldintzei baino eta idatzita egoteak edozein xedapenen edukiari eragiten diola eta errekurritutako administrazio egintza deusezten du¹⁶.

EAEko Justizia Auzitegi Nagusiaren 2007ko otsailaren 12koa Epaia (JUR 2007\126842): Kasu honetan Azpeitiko Udalak onartutako ordenantza aurkatzen da eta Epai honek erabat baliogabetzen du ordenantza, ondoren AGk epaia berresten du. Lehenik Epaitegiak argudiatzen du, Azpeitiko Udalak ez duela eskumen edo ahalmenik udalerrian euskararen erabilera arautzeko, eskumen hori Autonomia Erkidegoarena delako¹⁷. Ondoren gaineratuz, Euskararen erabilera lehenestea udalaren jardueretan, koofizialtasunaren aurkakoa dela¹⁸. Auzitegiak ez du kontuan hartzen Azpeitiko errealitate soziolinguistikoa (herritarren %90a euskalduna) eta ez du onartzen udal lanpostu guztiek derrigorrezko hizkuntza eskakizuna izatea¹⁹. Amaitzeko, Azpeitiko Udalaren ordezkariak aurkeztu zituen adibide guztiak, ordenantzaren legezkotasuna argudiatzeko eta Udalen eskumena erakutsiz (beste udalerrietako Ordenantzak, Kataluniako Epaimahai Gorenaren Sententziak, Hizkuntza Minorizatuen Europako Karta) Auzitegiak ez ditu onartzen²⁰.

4. Aztertutako Jurisprudentziaren ondorio nagusiak

a. Aginte publikoek hizkuntza ofizial bakarra erabiltzea erabaki dezakete, norberaren ekimenez edo baita interesdunek hala aukeratu dutelako, horrela arautzen denean, baina beti ere administratu interesdunen eskubideak kaltetu gabe, interesdunek erabilitako hizkuntza ez dutela ezagutzen arrazoiz alegatu baitezakete, eta hori gaztelaniarengatik ez beste hizkuntzarengatik bakarrik pasatzen da. Prozedura osoa euskaraz egin ahal izatea, hizkuntza horrek Euskal Autonomia Erkidegoan duen izaera ofizialaren ondorio naturala da eta horrek berarekin dakar bertan gauzatutako jardueran eraginkortasuna, Erkidego autonomo horretako eremuan.

b. Herritarrek eskubidea dute, Espainiako Estatuko edozein erakundetan gaztelania erabiltzeko eta ezin dira behartu, autonomia Erkidegoko beste hizkuntza erabiltzera. Bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan burututako edozein jarduerak erabateko balio eta eragin juridikoa izango du. Beraz, hizkuntzen erabilerari dagokionean, Administrazio Publikoek bermatu behar dutena da herritarrek hautatutako hizkuntza ofiziala erabiliko dela eta horretarako Administrazioaren zerbitzura dauden langileak hizkuntzaren ikuspuntutik

trebatuta egon behar dira.

c. Estatuak bere osotasunean, gaztelania zein Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofiziala jakitea bermatzeko obligazio konstituzionala du. Bi hizkuntzak benetan irakasteko bidea ematen ez duen legediak aipatutako betebeharrak konstituzionala urratuko luke.

d. Botere publikoek ez dituzte hizkuntz eskubideak, baizik eta, hizkuntz arloko betekizunak dituzte.

e. 8.3 art. deuseztu ondoren, indarrean bi hizkuntzen erabilera elkartua exijitzen duena dago EAEn. Interesdunek hizkuntza bat soilik erabiltzeko hautua egitean ezik, Botere publikoen egintzak elebidun izan behar dute baliozkoak izan daitezen. Hizkuntza ofizial bakar bat erabiltzeko baldintza hiritar interesdunek hizkuntza ofizial horren hautua egitea delako.

f. Euskararen Legea, Espainiako araudia baino estuagoa da, erabilerari dagokionez, Espainiako Legediak, inor diskriminatu gabe, euskaraz bakarrik jardutea ahalbidetzen duelako.

**Euskararen
Legea,
Espainiako
araudia baino
estuagoa da,
erabilerari
dagokionez,
Espainiako
Legediak, inor
diskriminatu
gabe, euskaraz
bakarrik jardutea
ahalbidetzen
duelako.**

5. EAEN KOKATURIKO ADMINISTRAZIOEN ARTEKO HARREMANETAKO HIZKUNTZA

Euskara eta Gaztelera biak dira hizkuntz ofizialak Euskadiko Erkidego Autonomoan eta beraz, biak erabili daitezke eraginkortasun eta baliozkotasun juridikoz edozein erlazio publiko edo pribatutan, eta zalantzarik gabe, Administrazioak herritarren hizkuntz eskubideak errespetatu behar ditu, ofizialtasun bikoitza errespetatuz. Beraz, Botere Publikoek bi hizkuntz koofizialetatik edonor erabili dezakete beste Botere Publiko batekin erlazioatzean, beti ere, ofizialtasun horren lurraldetasuna errespetatzen bada. Honek behartzen gaitu, Konstituzioarekin bat eginez, guztiz baliozkoa da gaztelera edo euskara bakarrik erabiltzea bai Estatuko Administrazioa Udalerri euskaldunekin harremanetan jartzea eta baita Udalerri euskaldunak Estatuko Administrazioarekin harremanetan jartzean.

Azter ditzagun ditugun oinarri juridiko materialak.

1. Euskararen Legeko 8. art. ez da aplikagarri Administrazio arteko harremanetan

Euskararen Legeko 8. Art. ez da aplikagarria Administrazio arteko harremanetan. Botere Publikoak ez dira hizkuntz eskubideen jabe 8. artikularen efektuetarako, kontuan izanik izendaturiko hizkuntz eskubideak herritarrei aitortzen zaizkiela eta ez Administrazioari (EK 2 eta 3.1. art; 10/82 Legeko 5. art.). Beraz, Botere publikoek ez dituzte hizkuntz es-

kubideak baizik eta hizkuntz arloko betekizunak dituzte, lehena eta garrantzitsuenak herritarrei 10/82 Legeko 5.2. artikuluan onarturiko hizkuntz eskubideak bermatzea da eta Legeak eskatzen dizkien beste betekizunak betetzea²¹.

EAEn, kokatutako Administrazioek euskara jakiteko egin behar bat dute²². Ezin dute, hortaz, euskara ez dakitenik modu zilegi baten alegatu, edo inolako eskubiderik urratu zaienik euskara hutsa erabiltzen duten idatziak zuzentzen zaizkienean. Izatez, 82/86ko Konstituzio Epaia ren arabera, hizkuntza baten ofizialtasuna onartzeak, hizkuntza horretan idatzitako baliozkotzat hartu behar izatea dakar.

Botere Publikoek bi hizkuntz koofizialetatik edonor erabili dezakete beste Botere Publiko batekin erlazionatzean, beti ere, ofizialtasun horren lurraldetasuna errespetatzen bada. Honek behartzen gaitu, Konstituzioarekin bat eginez, guztiz baliozkoa da gaztelera edo euskara bakarrik erabiltzea, bai Estatuko Administrazio periferikoa Udalarekin harremanetan jartzean eta baita Udalak Estatuko Administrazio periferikoarekin harremanetan jartzean²³. Aurrez esan dugun bezala, koofizialitate erregimenak ez garamatza Administrazio Publikoak publikatzen duen guztia bi hizkuntzetan publikatzeko obligaziora "...no con lleva la obligación de la Administración pública de producir la totalidad de los documentos que publique o suscriba en las dos lenguas..."²⁴. Administrazioarekiko administratuak dituzte hizkuntz eskubideak, beraiek dira titularrak eta legitimitatea dutenak eskubideak aldarrikatzeko. Euskararen Legeak Administrazio eta herritarren arteko harremanak arautzen ditu eta ez Administrazio arteko harremanak.

2. Autonomia Erkidego bereko Administrazioen arteko harremanetan erkidegoko hizkuntza ofizial bat erabili behar da

Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 36.1 art. ezartzen denez Erkidego honetako Administrazio guztiak derrigortuta daude erantzutean, herritarrek aukeratzen duten hizkuntza ofizialean egitera. Horren ondorioz, Erkidego honetan kokaturiko administrazio guztiak eta bere menpe dauden organoak derrigortuta daude betebeharrak honi aurre egitera. Hots, giza baliabideak antolatu beharko dituzte euskaraz soilik aritzeko herritarrek horrela aukeratzen badute. Euskararen Legeak ere horrela ezartzen du 6. artikuluan eta Konstituzio Auzitegiak egiaztatu egin zuen betebeharrak hori Euskararen Legeari buruzkoa epaian.

Kontuan hartzekoa da ere 36.3 art. esaten dena: Erkidegotik kanpo atera ezik, Administrazio instrukzio-egileak ez ditu gaztelaniara itzuli behar espedienteen agiriak, herritarrek espresuki ez badute eskatzen.

Esandakoa aintzat hartuta zilegi da ulertzea 8. Art., elebitasuna ezar- tzerakoan, Erkidegoaren administrazioetako eta herritarren arteko ha- rremanak arautzeko helburua bakarrik duela, eta ez Erkidegoaren ad- ministrazio desberdinen arteko harremanak. Zentzu oneko interpretazio dela berresteko beste argudio bat dugu. 8.2 paragrafoaren azken zatian, han aurreikusten den salbuespenak horrela dio: “...salbu eta interesdun partikularrek Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialetako bat berariaz erabiltzea aukeratzen badute”. Hau da, salbuespenak herritarren arteko harremanak baditu menpean logikoa da pentsatzea aurrekoa ere esfera juridiko horretan ari dela. Interpretazio horren aldekoak dira ere 8.1 eta 8.3 atalen idazkerak. Azken atal horrek (indargabetu bazen ere Konsti- tuzioaren kontra zihoala deklaratu zelako) Erkidegoen administrazioetako eta herritarren arteko hizkuntz harremana arautzen zuen kasu zehatz batean. Lehenengo atalari dagokionez ere, elebitasuna eskatzen da arauak eta erabaki ofizialak publikatzerakoan, hau da, herritarrei zu- zentzen denean, batez ere.

Beraz, Autonomia Erkidegoan kokatutako administrazioetako harre- manak, hizkuntza baten zein bestean izan ahal dira; bai euskaraz soilik, bai gaztelaniaz soilik, biak baitira, azken batean, hizkuntza ofizialak (eta hortaz, biak ala biak onartzeko eginbeharra dutelako Administrazioak) eta Erkidegoari kokatutako administrazioak derrigortuta daudelako biak ezagutzero (eta ezin dutelako, hortaz, baliozkotasunez, ez ezagutza bat alegatu, hizkuntza ofizial baten idatzitako agiriaren baliozkotasuna gaitzesteko).

3. Hizkuntza ofizial batek elebakarki erabiltzeagatik ezin du bere ofizialtasuna galdu

Euskara eta Gaztelera biak dira hizkuntz ofizialak Euskadiko Erkidego Autonomoan eta honi, gehitu behar diogu, Estatuko Gobernuaren Or- dezkaritza derrigortua dagoela euskaraz jakitera zeren eta bere betebe- harretako bat da Euskaraz zuzentzen diren herritarrei euskaraz erantzutea, euskara hizkuntza ofiziala delako, euskara ulertzeko betebeharra du, Euskadin kokatutako beste edozein botere publikok bezala. Eta hori horrela izanik ezin du ez jasotzat jo euskara hutsean bidalitako idatzia, fede txarrez ez bada.

Bi hizkuntzak ofizialak baldin badira, ulertu behar da horietako bakoitza dela ofiziala, zentzugabekoa bailitzateke ulertzea hizkuntza ofizialak, elebakarki erabiltzeagatik, bere ofizialtasuna galtzen duenik. Ofiziala ez den hizkuntza baten idatzitakoak, hizkuntza ofizial batera itzuli beharra egon daiteke, botere publikoen aurrean, baliozkotzat onartua izan dadin. Hizkuntza ofizial baten idatzitakoa, aldiz, ez dago itzuli beharrik. Bestela, zail litzateke ofiziala ez den hizkuntzekiko aldea zertan datzan azaltzea Hizkuntza ofizial baten idatzitakoa baliozkoa izan dadin derri-gorrez beste hizkuntza ofizialera itzuli beharra balego, ulertu behar litzateke ofizialtasuna testu elebidunei bakarrik egotzi dakiekeela. Eta esaterako, baita ere, atzerriko hizkuntza baten idatzitakoak, botere pu-blikoek onar dezaten, ez dela nahikoa hizkuntza ofizial bakarrera itzultzea eta hizkuntza ofizial bietara itzuli behar dela, hizkuntza ofizial bakarrean idatzitakoak, berak bakarrik, ez duelako baliorik.

4. “Inor ezin da bere egintza propioen aurka joan” Printzipioa

Pertsona bat era jakin batean espresatu edo jarduten bada, ezin du, Epaitegietan aurkako planteamendu edo inkongruentean jardun, Fede oneko espresio bat da, ezin baita aintzat hartu kontrakoa esan nahi den edo beste zerbait esan nahi kasuetan. Nahiz eta arlo Zibileko printzipio bat den Auzitegi Goreneko Administrazio Auzietako Salak aplikatu du printzipio hau.²⁵

Estatuko Abokatuak bi hizkuntzak erabiltzeko exigentzia egiten du 10/1982 Legeko 8.2. art. oinarrituz. Estatuko Abokatuak egiten duen 8.2 art. interpretazioarekin baliogabekotzat jo behar genituzke, hiritarren berariazko onarpena izan ezik, modu elebidunean ez dauden Euskadin kokatutako edozein botere publikoren edozein egintza juridiko. Gehiengo euskalduna duten Udalerrien aurka aurkeztu duen demanda guztiak gaztelera hutsean daude eta maila guztietako administrazio guztiek hartutako ebazpen, jakinarazpen, akta, eta egintza mordoa, Euskadin kokatutako botere publiko diren neurrian, hortaz, behartuta daude euren jarduna modu elebidunean eramatera, horrela egin ezean baliogabea izatearen arrisku baileudeke, gehiengo zabal batean gaztelera hutsean idatzita daudelako eta artikulua idazkeraren interpretazio zorrotz horrek, hortaz, egintza juridiko oro, dela hiritarrekiko, dela barne funtzionamendurako, dela beste administrazioekiko... itzultza behartuko luke, administrazioen legezkotasun printzipioari jarraiki eta egintza juridiko horien legezkotasuna bermatze aldera, aurretiaz, eragindako hiritar ororen berariazko baimena izan ezik, eta legezkotasun eta zuhurtzia

printzipioei jarraiki. Horrek, itzelezko kostu ekonomikoa izateaz gainera, hizkuntza bien aldebakarreko ofizialtasuna ukatzea suposatuko luke, eragindako hiritar ororen aurretiazko baimena izan ezik administrazioaren egintza oro ofizial eta Legezko izateko, elebidun izan beharko lukeelako, eta hizkuntza bakarrean idatzitakoak, baliogabe.

Aintzat hartzekoa da, Euskararen erabilera arautzeko Legeak bere hirugarren xedapen gehigarrian dioena *“Eusko Jaurlaritzak, horretarako eskumena duten organoekin elkar hartuta, euskararen erabilera Euskal Herriko Autonomia Erkidegoko Estatuaren Administrazioan arian-arian normalizatzeko neurriak hartzea bultzatuko du, Lege honen 6, 8, 11, 13 eta 14. Artikuluetan araututakoetan.”* Hots, eskumena duten organoekin adostuta, euskararen normalizazio bidean hartu beharreko neurriak hartuko direla Euskadiko Erkidegoan kokatutako Estatuko Administrazioan. Baina, argi dago xedapen honek porrot nabaria izan duela eta hanka sartu gabe tamalez lasai esan dezakegu, euskarak praktikan ofizialtasun estatusik ez duela Euskadiko Erkidegoan kokaturiko Estatuko Administrazioan²⁶.

5. Administrazio batek besteari beti eskatu ahal dio akats dun jakinarazpenak zuzentzeko baina ezin ditu ez-jasotzat hartu

Legearen idazkera interpretatuz ondorioztatzen badugu udal-aktak elebidun bidali behar direla, horrek ez du esan nahi udal-akta euskaraz soilik bidaltzen badira, automatikoki ez-jasotzat bezala hartu daitezkeenik. Hobeto esanda, euskaraz soilik jakinarazitako idatziak eraginkorrak dira²⁷. Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legeko 58. art.ko 3 eta 4 paragrafoetako kasuetan²⁸, artikuluak berak adierazten du jakinarazpenak ondorioak dituela nahiz eta guztiz zuzena ez izan. Beraz, jakinarazpen horretan zer esaten den ulertzeko gai bada eta testu osoa badago bidalita, nahiz eta euskaraz soilik izan, jakinarazpenak eragina sortuko du.

Legeak eta jurisprudentziak jakinarazpenari buruz diotena jarraituz, atera ahal dugun lehenengo ondorioa da: gauza bat dela jakinarazpenaren ekintza administratiboa eta beste bat jakinarazten dena, hau da, Auzitegi Gorenak esaten duen bezala: *“El acto de notificación pues, prescrita, en consecuencia, una naturaleza independiente del acto que se notifica o publica, significando o determinando el comienzo de la eficacia de este último”* Beraz, jakinarazpen egintza hizkuntza bakarrean egon arren, jasotzailea elebiduna bada (Euskadin kokatutako Administrazio publikoak elebidun izateko eginbeharra daukate) inolaz ere ezin luke esan ez duela jaso.

Ondorioz, Gobernuaren Ordezkariordeztzak uste badu, udalak akta (edo haien ordezt hartutako erabaki zehatzen laburpena) elebidun erara bidali behar diola, Gobernuaren Ordezkariordeztzak udalari beti eskatu ahal dio zuzentzeko baina ezin ditu ez-jasotzat hartu²⁹.

Jakinarazten den egintza administratiboak, euskaraz soilik bidaliz gero, Euskadiko Gobernuaren Ordezkariordeztzak ezin du alegatu idazkera ez duela ulertzen, herritarrek aukeratzen duten hizkuntzan erantzutera behartuta daudenez, ulertzeko medioak izan behar ditu. Azken batean, euskara hizkuntza ofiziala baita Erkidegoan eta Estatuko Ordezkari-tza derrigortuta dago euskaraz prozedurak izapidetzeraz.

6. Europar Batasuneko herritarren hizkuntz eskubideak errespetatu behar dira

Gaur egun, udal arloan, hiritarrek gaztelaren ez ezagutza modu zilegi baten alegatu ezin dueneko presuntzio hori erlatibizatu behar litzateke, gero eta gehiago baitira gure artean, gaztelera jakiteko eginbehar hori aplikagarri izan gabe, hautesle eta hautagai izateko eskubidea duten Europar Batasuneko herritarrak Espainiar Konstituzioaren 13.2 art. arabera. Horien artean batzuk, adibidez iparraldean bizi diren euskaldunak, frantsesa eta euskara jakin dezakete eta ez aldiz, gaztelera.

Hortaz, ezin baztertu daiteke gaztelera hutsean jasotako eta hiritarren edo haien ordezkarien jardunerako transzendentzia duen udal egintza batek hiritar baten edo gehiagoren eskubideak urratzea. Eta Aholku Batzorde Juridikoak³⁰ aipatzen duen 31/2010 konstituzio Auzitegiaren epaiaren 23. Oinarriari jarraiki, hiritar horiek ere beharrezko zaizkien komunikazioak ulergarri zaien hizkuntza ofizialen baten, alegia, euskaraz, jasotzeko eskubidea izango lukete, eta eskubide hori eraginkor egin behar liteke “Administrazioarekiko harremanetan subjektu aktibo bihurtzen dituen eta eurentzako zama edo eginbeharra bilakatu daitekeen inolako formalidade edo baldintzarik gabe”.

7. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1293/2007 Erregelamenduak balio aitortzen diela jakinarazpenaren xedea den tokian ofizialak diren hizkuntzei

Europako Hizkuntza gutxituen Itunak bere 7. Art. objektu eta printzipioak agertzen dira, lehenik Estatuak neurri murriztaileak deusezteko konpromisoa hartzera behartzen ditu ondoren, hizkuntz gutxituak bultzatzeko neurriak hartzera bultzatzen dituelarik. Honekin lotuta, Europako Par-

lamentuaren eta Kontseiluaren 1293/2007 EE Erregelamenduari egin behar diogu erreferentzia; izan ere, Erregelamendu hori arlo Zibil eta Merkataritza arloko judiziozko eta judizio kanpoko dokumentuak Estatu kideetan jakinarazteari eta helarazteari buruzkoa baita. Bere 4.3 art. dio “...*El formulario se cumplimentará en la lengua oficial del Estado miembro requerido o, cuando haya varias lenguas oficiales en dicho Estado miembro, en la lengua oficial o en una de las lenguas oficiales del lugar en el que deba efectuarse la notificación o el traslado...*” Beraz, Erregelamenduak balioa aitortzen die tokiko hizkuntza ofizial batean idatzitako jakinarazpen eta helarazpenei ondoren seinalatuz bere 8. artikuluan hartzaileak uko egin diezaiokeela dokumentu hartzeari baldin eta ez badago errekeritutako Estatu Kidearen hizkuntza ofizialean, edota jakinarazpena edo helarazpena egin behar den tokian ofiziala den hizkuntzan edo ofizialak diren hizkuntzetako batean, Estatu Kide horretan hizkuntza ofizial bat baino gehiago baldin badaude edota hartzaileak ongi ulertzen duen hizkuntza bat ez bada.

8. Gai honetan, EAEn kokaturiko administrazio auziko Epaitegien interpretazioa

Administrazio artean erabili beharreko hizkuntzan oinarriturik, Udalak, bere gobernu organoen bileren aktak edo harturiko akordioen laburpenak igortzean erabili beharreko hizkuntzaren inguruan, bi Epaitegiak eman dute euren iritzia: Bilboko Administrazioarekiko Auzien 1 zk.ko Epaitegiak emandako 119/2014 Epaia eta Donostiako Administrazioarekiko Auzien 3 zk.ko Epaitegiak emandako 154/2014 eta hurrengo Epaiak. Bi Epaitegien iritzia kontrajarria da.

a. Bilboko Epaitegiak arrazoia ematen dio Estatuko Abokatuari, bere iritziz, 10/82ko 8. art. da aplikagarri administrazio arteko harremanetan eta beraz, jakinarazpenak bi hizkuntzetan egin behar dira. Epaitegi hau, ondorio berdinetara iritsi da 30/1992 Legeko 36 art. aplikatuz.

b. Aldiz, Donostiako Epaitegiak aurkakoa ondorioztatzen du. Bere iritziz, 10/82 Legeko 8. art. ez da aplikagarria Administrazio arteko harremanetan. Hizkuntza eskubideen titularrak hiritarrak dira 8. Art.ren efektuetarako, kontuan izanik izendaturiko hizkuntz eskubideak herritarrei aitortzen zaizkiela eta ez Administrazioari (EK 2 eta 3.1. art; 10/82 Legeko 5. art.). Gaineratuz, Botere publikoek betekizunak dituztela, garrantzitsuena, herritarrei hizkuntz eskubideak garantizatzea delarik.

**Azpimarratzekoa
da, Katalana
egoera gutxitutik
ateratzeko
katalanaren
sustapena eta
zabalkundea
egiteko politikak
aurrera eramatea
onartu egiten
dela.**

Bi Epai kontrajarri hauek garbi adierazten dute, Legearen idazkerak interpretazio kontrajarriak ahalbidetzen dituenaz, euskararen normalizazio prozesua babesteko eta kaltegarri diren interpretazio zorrotzak ekiditeko, Legearen idazkera argia bat behar dela. Gaur egungo araudiak, Auzitegiei aukera usten die, interpretazio murriztaile eta kaltegarriak egiteko.

6. ARAZO BERTINEI JURIDIKOKI AURRE EGITEKO BESTE KOMUNITATE AUTONOMOEK ERABILI DITUZTEN SISTEMAK

I

1. Katalunia

Kataluniako Hizkuntza Politikari buruzko 1/1998 Legearen hitzaurrean ezarri da katalanera berezko hizkuntza izateak botere publikoak behartzen dituela babestera, erabiltzera eta maila guztietan erabilera publikoa bultzatzera. Legeak idazketa berria eman dio 8/1987 Legearen 5. art.ri, azpimarratuz, Katalana berezko hizkuntza izanik, Kataluniako erakunde guztien hizkuntza dela, eta batez ere, Generalitateen administrazioarena, toki administrazioarena, erakunde publikoena, enpresa eta zerbitzu publikoena eta irakaskuntzarena. horrenbestez, bertako jardueretan orokorrean erabili behar den hizkuntza izan behar du. Herritar guztiek dute toki-erakundeekin harremanak izateko hizkuntza ofiziala aukeratzeko eskubidea eta toki-erakundeek aukeratutako hizkuntzan erantzuteko betebeharra. 9art. ezartzen da autonomia erkidego horretako udalek katalana erabili behar dutela barne-jardueretan eta elkarren arteko harremanetan eta, 10. artikulua araberako Kataluniako toki-administrazioek eta gainerako korporazioek izapidetutako administrazio-prozeduretan katalana erabili behar dute. Honek, administrazio prozeduratan erabili beharreko hizkuntza erregulatzen du. Katalanaren erabilera arrunta bultzatzen delarik, beti ere, herritarrek nahi duten hizkuntz koofiziala erabiltzeko aukera emanez eta gaztelera erabili nahi dutenei eragiten dien egintzak gaztelarrera itzultzeko eskaria egiteko eskubidea aitortuz³¹.

